

-Lan Hitzarmenaren egoera-

Dagoeneko 9 hilabete igaro dira Lan Hitzarmena negoziatzen hasi ginetik. Bederatzi hilabete luze honetan Haurreskolak Partzuergoko langileek batzarrak, kontzentrazioak eta lan uzteak burutu behar izan dituzte. Denboraldi honetaz ezer azpimarratu beharko balitz, ezbairik gabe kolektiboak agertu duen batasuna eta mobilizazioan arrakasta lirateke. **Urteak dira Irakaskuntzan horrelakorik egiten ez zela.**

LABek egiten duen balorazioa positiboa da, prozesu guztian zehar lanketa, partaidetzan oinarriturik izan delako, eta kolektiboak aho batez erantzun duelako.

Ez dugu uste uztailean eta abuztuan gauzak mugituko direnik beraz irailerarte Partzuergoa mugiarazteko itxaron beharko dugu. Hala ere LAB egoera askatzearen zirrikitu guztiak aprobetxatzen saiatuko da. Ildo honetan joan den uztailaren 9an LABek Sailburu berriarekin, Tontxu Camposekin, aldebikoa eduki zuen, eta lehentasunaren artean Haurreskolak Partzuergoko Lan Hitzarmena aipatu genion, gure arteko desadostasuna lanaldian dagoela gaineratuz. Esan genion ere, negoziazioa iritsi den tokira iritsita erantzunkizuna, LABen ustez, Hezkuntza Sailaren dagoela, erantzukizuna berak zuela, eta akordioa iristeko bidean dagoen harrizarra, lanaldia, berak mugi zezakeela. Bestela irailean egoera oker zitekeela.

www.labsindikatu.org/sectoreak/irakaskuntza/berezia

BAIONA:	13 Marengo karrika	tl. 05 59 59 50 20	• fax 05 59 59 50 21	baiona@labsindikatu.org
BILBO:	Rekalde Zumarkalea 82, 48010	tl. 94 470 69 26	• fax 94 470 69 09	irakaskuntzabizkaia@labsindikatu.org
DONOSTIA:	San Bladi 1, 20011	tl. 943 45 85 62	• fax 943 47 27 09	irakaskuntzagipuzkoa@labsindikatu.org
GASTEIZ:	Bueno Monreal 10, 01001	tl. 945 25 95 44	• fax 945 25 80 39	irakaskuntzaaraba@labsindikatu.org
IBIÑERRA:	M. Zelaia 75 25 400 21014	tl. 949 29 94 74	• fax 949 29 12 78	irakaskuntzaferraz@labsindikatu.org